

«Euskararen erabilera bultzatzea da proiektuaren helburua»

Kuadrillategi Lasarte-Orian 1997tik aurrera ekaina bitartean burutzen ari den proiektuaren izena da. Helburua gazte koadrilak euskaraz bizi daitezen lortzea da eta, horretarako, hainbat ekimen eraman dituzte aurrera.

AMAIA MUNDINANO

Kuadrillategi ekintza-ikerketa proiektua Ttakin Euskara Elkar-tearen, Muntteri AEK Euskalte-giaren eta Udaleko Euskara Zer-bitzuren ekimen komuna da. Pello Jauregi, Susana Martínez, Diego Egizabal eta Axier Hugu-nekin batera, proiektuaren gidaria eta arduraduna da.

Zertan datza Kuadrillategi proiektua?

Kuadrillategi gazteen artean, lagunartean, euskararen erabilera bultzatzea helburu duen proiektua da. Bertan, hizkuntza ohitura ezberdinak dituzten koadrilak har-tzen dute parte: euskaldunak, mistoek eta eraldunak. Hiru lan eremu planteatu ditugu: euskara eskolak, ekintza programa bat eta, azkenik, koadrila bakoitzaren jarraipen lana egin ahal izateko, koadrila saioa deitzen duguna.

Zerk bultzatu zintuzten ha-lako proiektu bat martxan jar-tera?

Proiektu honen inguruan bil-du garenek urte asko daramatza-gu euskalgintzaren munduan la-nean. Euskaltegietan eta bestelakoetan ikasten duten ask-ok euskaraz ikasi eta gero ez

Proiektuaren oinarri koad-rilak dituzte. Zergatik?

Gure utsez, euskara kalean zabalduko bada, koadrilak bidez lortuko da. Izan ere, taldeetan sortzen dira oihiturak eta, hizkun-tza oihutari dagokionez ere, gu-nerik egokiena dela pentsatzen dugu. Bestalde, hizkuntza oihura-ri aldatzeko, giro kolektiboa be-har dela argi dugu. Gainera, eus-kara kalera ateratzean, bertan da-ogean talderik adierazgarriena koadrilarik deritzogu. Zentzu ho-rrean, horiek 14-20 urte bitarte-koetan izaten dute presentziarik eta adierazgarritasunik handiena.

Nola egin duzue koadri-len aukeraketa?

Lehenik eta



Conny Bryckelher

behin, herriko ikastetxeetara jo-genuen gure proiektuaren berri emateko. Pixkanaka, herriko koad-rilaren mapa soziolinguistikoa osatuz joan ginen, ikastetxeetan banatu genuen galdetegi bat oi-narri. Horrekin, herrian zenbat koadrila dauden, euskaldunak zenbat diren, lagunartean euskara erabiltzen duten eta beste hainbat datu jaso genituen. Horik aurre-ra, koadrila ezberdinekin harre-manetan jarri eta Kuadrillategi proiektuan parte hartzeko gonbi-tea egin ginen. Guztira, zortzi koadrila euskaldun eta sei misto animatu ziren bertan parte har-tzera.

Zein ondortora iritsi zare-te egindako lanaren ostean?

Proiektu hau euskara kalera ateratzeko eta lagunartean haren erabilera sustatzeko oso bide emankorra dela ondorioztatatu du-gu. Proiektuan parte hartu duten taldeetan gauza asko aldatu dira: batzuek hizkuntza oihuturak aldatu dituzte, jendeak euskara ikasi du... Finkatutako helburuak be-tetirela pentsatzen dut.

Ondorioak kontuan hartu-ta, proiektua beste eskualde batzuetara zabaltzea inter-resgarria dela uste al du-ze?

Bai. Ekainean bukatuko dugu duela hiru urte Lasarte-Orian martxan jarri genuen esperien-tzia. Jasotako emaitzak kontuan izanik, esperientzia hori beste es-kualde batzuetara eramateko la-nean gabilta. Hori gauzatzeko, Kuadrillategi Elkarte sortu nahi dugu, beronen bitartez, proiektua gainontzeko eskualdeetara zabal-tzeko.

Zirtoka



Txillarredgi

Baxkortostan

Egia esan, "Baxkurteri" idatz-nezakeen lasai xamar, ofizialki Erusia buruko "Bashkirskeya" der-itzon Errepublikak Autonomoa. Bertakoek "Baxkur" esaten baitoie beren burnari. Bego, halere, erdi-bideko "Baxkortostan" hori, ingele-sezko prentsan datorren modura.

Ural Mendikatearen Mendebal-dean kokatuta, Baxkortostan-ek 143.600 kilometro karrotu ditu, eta lau miloi i' erdi biztanle. Erlijioz is-lamdarra dira, suniak; eta hizkun-tzaz «baxkur-dunako», horrela esan badaiteke; alaitarrak, eta turkiarren ahaidetarrak.

Hiriburuari, Ufa (1.091.000 biz-tanle), «bigarren Baku» esaten dio-te; petrolio-hiri nagusia baita. Eror-kin herria ere bada, hartz, petrolio-a duten eskualde guztiak bezala.

Putin-ek berriki Erusiaren «be-rantolaketan» egitean, «salsita han-dia» omen zegoela-ta, Sovieter Fe-derazioko 89 eskualdeetatik... zazpita pasatzea erabaki du. Eta zazpi super-prefeto horiek berak izendatuko ditu aurrerakoan. Bada-kizue: «armonizazio regional».

Eta agindu direlako eman du: Baxkortostan-go legetasuna «egoki-tu» egin behar dela, Mosku-ren nahiaeren arabera. Orain arte bertako Lehendakaria izateko, adibidez, Baxkurraz hitz egiten jakin behar zen. Hots, Putinek, besteak beste, lege hori kendu nahi du. Gaur egun erusiarrak (1.585.000) bertakoak baino gehiago direlako (963.000). Eta «diskriminazio» anti-ruso hori ezabatu nahi du. Bertako gehiengo erusiarra alde du, gainera.

Mansur Ayupov irakaslea, or-dea, Putinen aurka azaldu da: «orain dela 120 urte -esan du- biz-tanleriaen % 60 baxkurduna zen. Eta Erusiaren "politiak kolonialis-ta"ren ondorioz egoera demografi-koa aldatu bada, Baxkortostan-go legetari ezin dezake hori onar».

Bigarren Txexenia ote, petro-lia eta guzti? Geroak eranen.

Aitzindariak

XAN BAIT AZKONAGERRE
1 8 4 4 1 9 2 7



«Les échos du Pas de Roland» izkiriatu zuen 1867an. Irakurlearen irriari zeko, zerb eman zuen izenburuaren ondorik: «Traduit du Basque»

Makeako GANIX ANTXORDOI SUEIA-Rendano izenak da liburuetan irabazi guzia.

BIXKOTXA BEZALA SÄLDU ZEN: BORTZ EDIZIOE GUTIENTIK; HÄÄTIK IRAKURLE HÄINITZEK GALDE EGITEN ZIOTEN: ZERTAKO EZ DÄUKUZU ESKURATZAKO LIBURUÄ ERE ÄGERÄRÄZ-TEN?

ALABAINA BÄRÄK EZ ZUEN? ESKURÄZ IZKIRIÄTZEKO USÄ

XERKÄ IBILIZEN NORÄ ITZULIKO ZION FRÄNTSE SA ESKURÄZÄT:

~ LÄRREGI SÄNPEREKO ERRETORÄ ZIBURUTÄRRÄK LÄSTER NÄKÄTU ETA BIDERDITÄN UTZI.

~ GIBERT LÄRRESOROKO APEZGÄIK BERRITÄK HÄSI ZUEN ETA FRÄNGO URRUNÄRA ERÄMÄN. BÄINA KOSTÄTÄRRÄ ÄZ IZÄNIK, BÄRE ESKURÄK ÄZ ZUKÄEN ÄZKONÄGERRERENÄREN EITERIK.

~ ESKILÄREN FÄMILÄKO EMÄZTEKI BÄTEKÄ ITSÄPS HEGIKO SÄNKRISTÄU BÄTEN LÄNÄK BÄZUEN LÖHI-ZUREKO JÄSTÄ, BÄINÄ BRÄL URRINÄ ERE.

ERKLOJUPERKOA:

HIRIBARRÄN BÄRDOZEKO ERRETORÄ, VINSON JÄKINTSUNA ETA ÄZKONÄGERRE BÄRÄ: BÄDERTÄZI EGUNEZ ÄRI IZÄNEN ZIREN ELGÄ-RTÄKIN, ETA XUTIK EZÄRRI ITZULPENÄ.

ETA HORRÄTÄX:

«ÄTHEKA GÄITZEKO OIHÄRTZUNÄK» ESKURÄZKO LEHEN ELEBERRIA
1 8 7 0

2100 ÄLE LEHENBIZIKO EDIZIÖNÄNÄ

Aitzindariak + la Grosse Fatie